AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

KULTURA SAILA

4767

206/2011 DEKRETUA, irailaren 27koa, Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen zuzendaria izendatzen duena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikuluko j) idatz-zatian, 26. artikuluko 6. paragrafoan eta 29. artikuluan ezarritakoaren arabera, Kulturako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko irailaren 27an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Igor Marín Ochoa jauna Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen zuzendari izendatzea.

2. artikulua.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko irailaren 27an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.